




libertad. libertad...

Jatorren isiltasuna
eta burokraten hotsa
bizitzaz gain nahi digute
inposatu heriotza
Jose Luis zure ondoan
ez dugu sentitzen hotza
ez dago bakardaderik
zuretzat dena arrotza
Zure begirada horretan
isladatzen da bihotza
eskuzabaltasunean
ez zara gelditzen motza
borroka behar denean
eta askatasunaz goza
tronpeta bat beti dugu
deituaz zure ahotsa

Nik zer esango nizuke
historialari banintza
egindako ibilbideaz
nolatan liteke mintza?
Zure ondoan ikasteko
dago bakarra baldintza
ikaslek gozua jarri
zuk jartzen duzu jakintza
Konpromesuz ta ausardiz
zure eskolan eraikitza
sakona pentsamendua
eta zuzena ekintza
abertzale aske batek
sortzen dun psikologitza
dialektikoa eskola
dialektikoa bizitza

(Habenera)

Luix Marko



Omenaldia JL de la Mota 2003 - XII - 12



*Venir detrás de los otros
puede ser un privilegio
buscamos el mismo rastro
por diferentes senderos*

*Uno transita caminos
y se encuentran compañeros
luego uno se separa
y cuesta volverse entero*

*Objetivo yo sería
si me hubieran hecho objeto
Soy complejo y subjetivo
pues me convertí en sujeto*

*Joxean Keia®
Julian M. Ona*

